

# Deustu

## Europostgradosen

Kolonbia da gure geletan gehien ordezkatura dagoen herrialdeetan zazpigarrena. Hori dela eta, aurten lehenengoz parte hartu du Deustuk Bogotan egin den Europostgrados 2010en edizioan. Azaroaren 13an eta 14an, DUko ordezkariak aurkeztu zuten azokan graduondoko eskaintza osoa eta bertan artatu zituzten European unibertsitateko prestakuntza osatzeko asmoz hurbildutako tituludun guztiak. Horrekin batera, Unibertsitatea Mexikon egin zen azokaren edizioan ere egon zen, azaroaren 20an eta 21ean.